

## ARRATE

Urtero lez egin zan Arraten, Peli Aldazabal zanaren oroiz, Eibarko «Esparrua»k eraturako umeen euskal sariketea. Aurtengo au, seigarren aldiz, bagillaren 2'an izan zan. Mailla bitan egin zan: zazpi urterartekoak eta amalaurartekoak, euskeraz irakurri eta idatzi nok obeto egin.

Nagusien maillan (14 urterartekoak) 49 neska-mutikok artu eben parte. Iru falta baiño gutxiagogaz gelditu ziranak, zortzi izan ziran, era onetan klasifikaturik:

1. Erramon Agirre, donostiarra, 13 urte.
2. Odile Kruzeta, eibartarra, 10 urte.
3. Gorka Setien, 10 urte.
4. Jose Alberto Gorosabel, 9 urte.
5. Jon Gotzon Arrese, 14 urte.
6. Gema Jayo, 8 urte.
7. Maria Pilar Beristain, 8 urte.
8. Margarita Castrillo, 8 urte.

Gaiñerako guztiak, iru faltatik gorakoak, mailla bardiñean ipintzen dira.

Txikitxoan maillakoetan (7 urterartekoak) 61 neska-mutikotxok parte artu eben. Egitada errezago batean, ondorengo amalaurak gelditu ziran aurrerengo:

1. Lorea Iriondo, 7 urtekoa. (Nungoa zanik ez eben ipiñi, baiña elgoibartarra ei da).
2. Yone Miren Larrañaga, debarra, 7 urte.
3. Miguel Angel Ruiz, 7 urte.
4. Kauldi Arostegi, 7 urte.
5. Milagros Aristi.
6. Iñaki Odriozola, 6 urte.
7. Imanol Bergara, 7 urte.
8. Juan Ulazia, 7 urte.
9. Iñaki Arrizabalaga, 6 urte.
10. Alfredo Albizu, 6 urte.
11. Begonia Aizpurua, 6 urte.
12. Maria Lurdes Peñalba, 6 urte.
13. Eskarne Fuldain, 6 urte.
14. Miren Itziar Arrieta, 7 urte.

Gaiñerako guztiak, lau faltatik gorakoak, klasifikaziño bardiñean lagatzen dira.

Sariak banatzea bagillaren 21'ean izango da Eibarko «Teatro Amaya'n», egun orretan gabeko amar t'erdietan egingo dan jaialdi batean.

Nagusien maillakoetan lenengoari: 3.000 peseta, txapela ta kopea (Eibarko Udaletxearen kopea). Bigarrenari, 2.000 peseta. Lenengo cibartarrari, Salaberriaren kopea.

Txikitxoetan lenengoari: 2.000 peseta, txapela ta Eibarko Udaletxearen kopea. Bigarrenari, 1.000 peseta. Gaiñerako guztientzat, Arraten bertan zabaldu ziran euskal liburuak.